

HIZTEGIA

ahaztu: olvidar**alde egin:** marcharse**aurreztu:** ahorrar**bateria-kargagailu:** cargador de
batería**batetik bestera ibili:** andar de un
lado a otro**bezero:** cliente**etorkin:** emigrante**freskagarri:** refresco**harreman:** relación**hitzordu:** cita**iparralde:** zona del norte**irribarrez:** sonriendo**itzuli:** regresar**litxarrerria:** golosina**lortu:** conseguir**mintzaleku:** locutorio**mugikor:** teléfono móvil**nola edo hala:** de alguna forma**oinarrizko:** b. sico, -a**ontziratutako elikagai:** producto
envasado**oztopo:** impedimento**saltzaile ibiltari:** vendedor ambulante**senide:** hermano, -a; pariente cercano**sorterri:** país natal**txartel:** tarjeta**zerbitzari:** camarero

9

Bilbon hamabi urte daramatzat, baina Euskal Herrira duela hamasei urte etorri nintzen. Bizimodu hobea nahi nuelako eta etxekoei laguntzeko etorri nintzen; Marokon, bizi nintzen herrian, oinarritzko gauzak ere ez genituen.

1. ____ 2. ____ 3. ____ 4. ____ 5. ____ 6. ____ 7. ____

6



Orain, esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Zuzendu gezurra diren esaldiak.

E G

Adib.: B simek duela zazpi urte ireki zuen mintzalekua Bilbon.

☐ ☒

Duela bost urte ireki zuen mintzalekua Bilbon.

1. Hamar urte daramatza Bilbon, baina Euskal Herrira duela hamahiru urte etorri zen.

☐ ☐

2. Marokon, bere herrian, denetarik zuen.

☐ ☐

3. Hasierako urteetan lagunei esker egin zuen aurrera.

☐ ☐

4. Gidari-lanetan eta erizain-lanetan aritu zen.

☐ ☐

5. Mintzalekura, batik bat, asiarak joaten dira.

☐ ☐

6. Mintzalekua etorkinen bilgunea da.

☐ ☐

7. Etorkinek krisia gutxiago nabaritzen dute.

☐ ☐

8. Eurek dirurik ez badute, familiari bidaltzeko ere ez daukate.

☐ ☐

9. B. sim bakarrik bizi da Bilbon.

☐ ☐

10. Emaztea Bilbon ezagutu zuen, eta Bilbon ezkondu ziren.

☐ ☐

11. Urtero joaten dira euren herrialdera.

☐ ☐

gogoratu

Egin ezazu ezagutzen ez zenituen hitzen zerrenda. Gehiago jakin nahi baduzu, begiratu hiztegia, eta hartu behar dituzun oharrak.

Zer deklinabide-kasu erabili da pertsona bat nongoa den adierazteko?

Zer egitura berrikusi duzu zergatia adierazteko?

Zer aditz trinko erabili da norbait edo zerbait leku batean pasatzen ari den denboraldia adierazteko? Eman bi adibide:

Zer denbora-adierazle erabili dira gertaera bat noiz gertatu den/zen adierazteko? Eman bi adibide:

Zer egitura berrikusi dituzu zehar estiloan?

01 ONGI ETORRI!

Jende berria ezagutzen dugunean, geure burua aurkezten dugu: nor garen, nongoak garen, non bizi garen, gure lanbidea zein den, etab. Lagunak egiten ditugunean, gauza gehiago kontatzen ditugu: nolakoak garen, zer zaletasun dauzkagun, zer ohitura dauzkagun, zein diren gure gustuak... Bizi garen lekuari buruz ere hitz egiten dugu, baita beste herri edo hiri batzuekin alde-

ratu ere. Eta gure bizimoduaz hitz egiten dugunean, askotan, atzera begiratzen dugu: non bizi izan garen, zertan aritu garen eta beste hainbat esperientzia kontatzen ditugu.

Unitate honek egoera horietan euskaraz moldatzen lagunduko dizu, eta, bide batez, A1ean eta A2an ikasitakoaren berrikusketa egingo duzu. Prest al zaude? Ongi etorri B1 mailara!

Unitatearen **helburu nagusiak**

- Izaera, zaletasunak, ohiturak, gustuak, nahiak eta desirak adieraztea.
- Herrialdeak deskribatzea eta alderatzea.
- Lan-ibilbidea eta bizitzako hainbat esperientzia kontatzea.

Unitatearen **atalak**

Lehenengo atala

ATARIAN Kanpotar batzuek beren burua nola aurkezten duten ikusiko duzu.

Bigarren atala

A Lehenik, pertsona batzuek nolakoak diren, zer ohitura dituzten, zer gustu, nahi eta desira dituzten azalduko dute.

B Ondoren, beste lagun batzuek hainbat herrialde eta hiri nola deskribatzen dituzten, eta beste batzuekin nola alderatzen dituzten aztertuko duzu.

C Azkenik, hainbat lagunek lan-ibilbidearen nondik norakoak eta bizitzako hainbat esperientzia nola kontatzen dituzten landuko duzu.

Hirugarren atala

ERABILI Atal honetan, zu izango zara protagonista, eta unitatean zehar landutakoa praktikatu eta ebaluatuko duzu.

Laugarren atala

BADAKIZU Bukatzeko, autoebaluazio-fitxa beteko duzu.



01 ATARIAN

ONGI ETORRI!

Hasteko, kanpotik gure herrira bizitzera etorri diren lagun batzuk ezagutuko ditugu: nondarrak diren, zenbat denbora daramaten gure artean, zergatik etorri diren, non eta nola bizi diren, nola ikusten gaituzten euskaldunok...

KANPOTARRAK GURE ARTEAN

Telebista-saio batean munduko leku ezberdinetatik gure herrira etorritako pertsona batzuei buruzko erreportajea egin dute.



1 Irakurri lagun hauek nola aurkeztu duten beren burua, eta erreparatu markatutako hitzei.



Patricia

Kaixo! Ni Patricia naiz eta **estatubatuarra** naiz, Chicagokoa. Berrogeita hamar urte dauzkat. Unibertsitateko **ikasketak** bukatu nituenean, **master bat** egitera etorri nintzen Bilbora. **Bilbotar** batekin maitemindu nintzen eta **horregatik** gelditu nintzen hemen; **hoge**i urte daramatzat Euskal Herrian. **Turismo-gidaria** naiz.



Majid

Kaixo! Ni Majid naiz eta **irandarra** naiz. Berrogeita hamabost urte ditut. **Duela** hogeita bost urte etorri nintzen Iruera. Irango **iraultza** hasi zenean etorri nintzen, **bah** fedearen jarraitzailea nintzelako. **Alfonbra**-negozioa jarri nuen eta denda bat daukat.



2 Entzun beste lagun hauen aurkezpenak eta erantzun galderei.



Lia eta Levan

A.

1. Nondarrak dira Lia eta senarra? *Lia eta senarra georgiarak dira.*
2. Zenbat urte ditu Liak?
3. Non bizi dira?
4. Zergatik etorri ziren?
5. Zenbat urte daramate Euskal Herrian?
6. Zertan egiten du lan Liak?

B.

1. Nondarra da Robert?
2. Zenbat urte ditu?
3. Non bizi da?
4. Zenbat urte darama Euskal Herrian?
5. Zergatik etorri zen?
6. Non ezagutu zuten elkar Robertek eta emazteak?
7. Zertan egiten du lan?



Robert

HIZTEGIA

nork bere burua aurkeztu: presentarse
erreparatu: fijarse
erreportaje: reportaje
fedea: fe
iraultza: revoluci n
jarraitzaile: seguidor
kanpotarra: forastero, -a; extranjero, -a
kimika-enpresa: empresa qu mica
musika-eskola: escuela de m sica
nondarra: de d nde
ongi etorri: bienvenido, -a; bienvenidos, -as
piano-irakasle: profesor, -a de piano
telebista-saio: programa de televisi n
turismo-gidari: gu a tur stico, -a

Lan-koadernoak: 5. or.

NONDARRA (NONGOA)

-(d/t)ar atzikia erabiltzen da nondarrak (nongoak) garen adierazteko.

Bokalez bukatzen diren leku-izenak:

-(t)ar: bokalez bukatzen diren hitzak:

Kuba	kubatar
Txile	txiletar
Mosku	moskutar
Euskal Herria	euskal herritar (herri hitza hartzen da kontuan)
Kongo	kongoar
Finlandia	finlandiar
Libano	libanoar

-uai-z amaitzen diren hitzak, -tar:

Uruguai	uruguaitar
Paraguai	paraguaitar

Kontsonantez bukatzen diren leku-izenak:

-dar: n, l, m, ng kontsonantez bukatzen diren hitzak

Brasil	brasildar
Vietnam	vietnamdar
Iran	irandar
Hong Kong	hongkongdar

-tar: r, s, sh, x, z, ts, tx, tz, kontsonantez bukatzen diren hitzak

Ekuador	ekudortar
Paris	paristar
Bangladesh	bangladeshitar

-ar: gainerako kontsonantez bukatzen direnak

Budapest	budapestar
----------	------------

Lan-koadernoak: 6. or.

ZERGATIK? - (E)LAKO

Zergatik galderari **-(e)lako** atzizkiarekin erantzuten zaio, normalean.

Zergatik joan zara lanera atzerrira?
Hemen lanik topatzen ez dud**alako**.

Zergatik etorri zinen bizitzera Euskal Herrira?

Mutil bat ezagutu nuel**ako**.

Lehenaldiko aditzek -n galtzen dute
-(e)lako atzizkia hartzen dutenean.

ERAMAN ADITZA

ERAMAN

NORK	sing.	pl.
Nik	daramat	daramat zat
Hik	daramak/n*	daramat zak /n*
Hark	darama	daramat za
Guk	daramagu	daramat zagu
Zuk	daramazu	daramat zazu
Zuek	daramazue	daramat zazue
Haiek	daramate	daramat zate

* -k solaskidea gizona denean
-n solaskidea emakumea denean

Lan-koademoa: 10. or.

DUELA BOST URTE = ORAIN DELA BOST URTE

Gertaera bat noiz gertatu den/zen adierazteko erabiltzen da.

Orain dela bi minutu / duela bi minutu atera da.

Hace dos minutos que ha salido.

Duela zazpi urte / orain dela zapi urte iritsi zen herrira.

Hace siete años que llegé al pueblo.

Lan-koademoa: 8. or.

HIZTEGIA

argi: claramente
atsegin: agradable
azaldu: explicar
baimen: permiso
beteta: lleno, -a
eskaini: ofrecer
garrantzi: importancia

C.

1. Nondarra da Daniela?
2. Zenbat urte ditu?
3. Non bizi da?
4. Noiz etorri zen Euskal Herrira?
5. Zergatik etorri zen?
6. Zertan egiten du lan?



Daniela

- 3 Ezagutzen al duzu zure herrialdekoa ez den norbait? Nor da? Nondarra da? Zenbat urte ditu?...



Ondoren, Danielak eta Robertek euskaldunen izaerari eta ohitura batzuei buruz hitz egin dute.

- 4 Entzun aurretik irakur itzazu galderak, eta, entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

1. Nolakoak iruditu zitzaizkion Danielari euskaldunak hasieran?
 - a. Atseginak eta irekiak iruditu zitzaizkion.
 - b. Serioak eta jenio txarrekoak iruditu zitzaizkion.
 - c. **Gogorak eta itxiak iruditu zitzaizkion.**
2. Zer esaten du Robertek euskaldunen izaerari buruz?
 - a. Euskaldunentzat oso garrantzitsua dela ondo abestea.
 - b. Euskaldunentzat oso garrantzitsua dela hitza betetzea.
 - c. Euskaldun guztiek hitza betetzen dutela beti.
3. Zer pentsatzen du Danielak euskaldunek gauzak azaltzeko duten moduez?
 - a. Euskaldunak gauzak azaltzeko itzulginguruka ibiltzen direla.
 - b. Euskaldunek argi eta zuzen esaten dutela esan behar dutena.
 - c. Euskaldunek haserre azaltzen dutela esan behar dutena.
4. Zer iritzi du Robertek euskaldunek eta janari-kontuez?
 - a. Janariari izugarrizko garrantzia ematen diotela.
 - b. Janariari ez diotela batere garrantzirik ematen.
 - c. Janariari gehiegizko garrantzia ematen diotela.
5. Zer pentsatzen dute euskaldunek janari gehiago eskaintzen dutenean, eta besteak ez duela gehiago nahi esaten duenean?
 - a. Besteak edukaziaz esaten duela ezetz, baina gehiago nahi duela.
 - b. Besteak lotsagatik esaten duela ezetz, baina gehiago nahi duela.
 - c. Bestea benetan beteta dagoela, eta ez duela gehiago nahi.
6. Zer ez du ulertzen, oraindik, Robertek?
 - a. Elkarte batzuetan, zergatik esertzen diren nahasita emakumeak eta gizonak.
 - b. Elkarte batzuetan, zergatik esertzen diren emakumeak eskuinean eta gizonak ezkerrean.
 - c. Elkarte batzuetan, zergatik esertzen diren emakumeak alde batean eta gizonak bestean.